

BESTEAK

Hamaika mila Birjinen erlikia-ontzia

Kristoren kaperaren hornidurako objektuen artean, erlikia-ontzi bikain hau nabarmentzen da, Francisco de Galarretaren alargun Claudia de Lirak 1672an opari emandakoa. Ezaugarri formalak kontuan hartuta, loturak dauzka XVII. mendearen lehen erdiko altzari flandestarrekin. Oinplano angeluzuzena du, eta erakusleihu bat gogorarazten du; hegal moduko batzuk ditu albo banatan, haritz-zur belztuzko ertzak dituztenak. Aurrealdean, metalezko xafla batzuk ditu, urre-koloreko letoigeruza batez estaliak, zurean bertan iltzatuak. Barruan gordetzen dituen erlikiak agerian geratzen dira hainbat neurritako hemeretzi baoren bidez. Baoak beiraz hornituta daude, eta mailuz eta zizelez landutako eta landare-irudiez apaindutako xafla zilarrezkoz inguratuta.

Hamaika mila birjinen erlikia-ontzia izenez da ezaguna, nahiz eta, berez, *Lignum Crucis* (gurutzeko zura) delakoari eskainitakoa izan. Erlikia preziatu hau ontziaren erdian egoten zen, zilarrean landuta dauden ?eta gaur egunera arte iritsi diren? aingeru hegodun batzuek inguratuta. Haren inguruan, beste hemezortzi erlikia daude, Hamaika mila birjinen lau garezur eta beste santu batzuen gorpuzkiak.



Egilea: Anonimoa

Data: c. 1672

Teknika: Haritz-zur belztua, letoi urreztatua, zilar bozeldua eta zizelkatua

Neurriak: 81 x 158,6 x 38 cm

Kokapena: Santa Maria Katedrala (Vitoria-Gasteiz)



Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

AZCÁRATE RISTORI, José M.^a de. "Catedral de Santa María (catedral Vieja)". En: PORTILLA VITORIA, Micaela J. et al. *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: Ciudad de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, tomo III, 1968, p. 111.

BARTOLOMÉ GARCÍA, Fernando R. "Fundación y patronato de los Alday y Galarreta. Las capillas de San Prudencio y Santo Cristo en la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz". *Ars Bilduma*, n.º 0, 2010, pp. 36-37.



Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba álava
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:



katedrala
SANTA MARIA



arte.catedralvitoria.eus

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak

Tel. 945 255135

www.catedralvitoria.eus

Bisitarien zentroa

Santa María kantoia 3
01001 Vitoria-Gasteiz

